

2018ko UDABERRIKO XAKE TXAPELKETA

(2018ko apirilaren 13tik maiatzaren 25era)

60 minutuko partidak izan ziren, gehi 30 segundo jokaldiko. Iruñeko Etxabakoitz Kirol Elkartean (bi partida) eta Iruñeko Printzearen Gotorlekuan (5 partida) jokatu zen.

AZKENEKO SAILKAPENA, 7 TXANDA JOKATU ONDOREN

- 1) **Sergio Anguas Fanlo (1.997) – 5'5 puntu.**
- 2) **Cristian Atipov Hadzhiev (1.808) – 5'5 puntu.**
- 3) **Gregorio Sola Plaza (1.804) – 5 puntu.**
- 4) Juan Labiano Hernandez (1.784) – 5 puntu.
- 5) David Astrain Juangarcia (1.576) – 5 puntu.
- 6) Unai Eguaras Marquinez (1.486) – 5 puntu.
- 7) **Pablo Fuertes Cirauqui (1.561) – 4'5 puntu.**
- 8) Jorge Fernandez Villameriel (1.555) – 4'5 puntu.
- 9) Ekain Galarza Arza (1.287) – 4'5 puntu.
- 10) Angel Luis Martin Fito (1.659) – 4 puntu.
- 11) Daniel Mugica Arratibel (1.553) – 4 puntu.
- 12) Daniel Aguinaga Garijo (1.389) – 4 puntu.
- 13) Manu Lopez Garcia (1.246) – 4 puntu.
- 14) **Joseba Otano Villanueva (1.734) – 4 puntu.**
- 15) Venancio Gilabert Pastor (1.288) – 4 puntu.
- 16) Pablo Mugica Arratibel (1.422) – 4 puntu.
- 17) **Lucia Fernandez Villameriel (1.328) – 4 puntu.**
- 18) Iñigo Martinez Lizardi (1.203) – 3'5 puntu.
- 19) Iñigo Ayucar Nuñez (1.246) – 3'5 puntu.
- 20) Raul Martino Gorbea (1.034) – 3'5 puntu.
- 21) Jose Antonio Fernandez Senovilla (1.168) – 3'5 puntu.
- 22) Jose Javier Villanueva Arribas (1.337) – 3'5 puntu.
- 23) Javier Sanchez Lerga (1.446) – 3'5 puntu.
- 24) Aitor Legasa Martin (1.573 euskal elokoa) – 3'5 puntu.
- 25) Gonzalo Martino Girones (1.152) – 3 puntu.
- 26) Asier Ayucar Nuñez (1.187) – 3 puntu.
- 27) Martin Perez Azanza (1.764) – 3 puntu.
- 28) Zigor Ruiz Jaso (1.217) – 3 puntu.
- 29) Xabier Abaurrea San Juan (1.412) – 3 puntu.
- 30) Irati Perez Azanza (1.072) – 2'5 puntu.
- 31) Irene Arlanzon Romero – 2'5 puntu.
- 32) Iñaki Hernandez Sabate (1.038) – 2'5 puntu.
- 33) Guillermo Duran Melgarejo (1.768 euskal elokoa) – 2'5 puntu.
- 34) David Jimenez Ruiz – 2'5 puntu.
- 35) Egor Belov – 2'5 puntu.
- 36) Maria Labiano Hernandez – 2 puntu.
- 37) Aitor Aguirrezabal Gastesi (1.655 euskal elokoa) – 2 puntu.
- 38) Luca Salas Giralda (1.710) – 1'5 puntu.
- 39) Carlota Aramendia Ybarra (1.536) – 1'5 puntu.
- 40) Luken Galarza Arza (1.739 euskal elokoa) – 1'5 puntu.

- 41) Daniel Jimenez Ruiz – 1'5 puntu.
- 42) Ernesto Artozqui Irurzun – 1'5 puntu.
- 43) Adrian Aranguren Niscoveanu – 1'5 puntu.
- 44) Gaizka Gilabert Serna – 0'5 puntu.

SERGIO ANGUAS FANLOK BELAUNALDI GAZTEAREN OLDARRALDIARI EUTSI DIO

Sergio Anguas Fanlok 39 urte ditu. Burlatako Mikel Gureako jokalaria da. Lehenengo zerrendaburua zen. Faboritoetako bat zen, azken boladan partida gutxi jokatu duen arren. Lehenengo txandan Iñigo Ayucarren aurka galtzean, aukera gutxirekin geratzen zela zirudien. Oker zegoen hori pentsatu zuena: Berpiztu eta azkenean torneoko garailea izan da.

Atzetik aurrera joanik, bideak samurragoa dirudi, baina bere azkeneko bi aurkariak goi mailakoak izan dira garai honetan: Cristian Atipov eta Juan Labiano jokalari gazteak, kalitatea soberan erakutsi dutenak. Bien aurka puntu eta erdia lortuta, Sergio Anguasek bere belaunaldiaren ohorea salbatu du.

Cristian Atipov Hadzhievek torneo ona egin du. Sergio Anguasen aurka galtzeak, puntu erdiko atsedena hartzeak eta erabilitako ezberdinketa sistemak bigarren postuan kokatu dute. Bost partida irabazi ditu.

Gregorio Sola Plaza hirugarren geratu da, soilik 5 partida jokatuta (seigarren txandan 0 puntu jaso zuen). Lau garaipen eta berdinak bat (Angel Luis Martin Fitoren aurka). Balantze ona, baina partida gogorrak jokatu gabe.

Cristian Atipov Hadzhiev izan zen 18 urtez azpiko jokalaririk onena, Pablo Fuertes Cirauqui 12 urtez azpiko onena, Lucia Fernandez Villameriel emakumerik onena eta Joseba Otano Villanueva jokalari beteranorik onena.

Hamar parte hartzaile galdu ditu torneoak urte batetik bestera. Hala ere, 44 jokalariko kopuruak garrantzitsua dirudi, aurrera segi dezan.

UDABERRIKO TXAPELKETAKO AZKENeko HISTORIA

2011n: **Gorka Argandoña Salinas**; **Ivan Tetimov**, bigarren; **Jose Zaratiegui Cardesa**, hirugarren.

2012an: **Ivan Tetimov**, garaile; **Javier Perez Marchal**, bigarren; **Miguel Argaya Urdaniz**, hirugarren.

2016an: **Joseba Otano Villanueva**, garaile; **Rafael Ruiz Escobar**, bigarren; **Gregorio Sola Plaza**, hirugarren.

2017an: **Martin Pascual Garcia**, garaile; **Jose Zaratiegui Cardesa**, bigarren; **Daniel Mugica Arratibel**, hirugarren.

2018an: **Sergio Anguas Fanlo**, garaile; **Cristian Atipov Hadzhiev**, bigarren; **Gregorio Sola Plaza**, hirugarren.

UDABERRIKO TXAPELKETAKO PALMARESA, 2011. URTETIK

- 1) **Sergio Anguas Fanlo – Titulu bat.**
- 2) **Gorka Argandoña Salinas – Titulu bat.**
- 3) **Joseba Otano Villanueva – Titulu bat.**
- 4) **Martin Pascual Garcia – Titulu bat.**
- 5) **Ivan Tetimov – Titulu bat.**

Informazio gehiago: “<https://info64.org/torneo-de-primavera-2018/standings>” webgunean.

2018-05-25.

Iturria: Nafarroako Xake Federakundea.